



KANALAK

Internet eta panfleto-en bitartez gure bezeroekin harremanetan jartzeko komunikazio-kanal egokiena dela erabaki dugu. Adibidez, *Tik Tok* moduko plataformez baliatuko gara gure produktua ahalik eta pertsona gehiagori iristeko.

Entretanimendu produktu bat saltzen dugunez, kanal zuzenez egingo dugu. Email bidez egingo dugu laburmetraien banaketa eta bezeroenganako bidalketa, internet bitartez ere.

Horretarako, merkatura balio-proposamen bat bidaltzeko eta, ondorioz, arrakasta lortzeko, erabakigarria da bezeroengana bezeroek eurek nahi duten moduan iristeko kanalen konbinazio zuzena aurkitzea.

Honakoak dira enpresa edota erakunde batek aukera ditzakeen kanal motak:

1. Bezeroengana iristea kanal propioak erabiliz (denda propioak, ohikoak zein online motakoak, eta komertzialak).
2. Elkartutako kanalen bidez (euren produktuak saltzen dituzten denda elkartuen bidez).
3. Aurreko bien arteko nahasketa eginez.

Kanal zuzenak

Dira bitartekaririk izatea saihesten duten; adibidez, saltzaile lantalde batek osatutako salmenta-maila edo Internet bidez saltzeko on line denda

Zeharkako kanalak

Dira dendak -propioak zein elkartuak- eta denda horiek handizka hornitzen dituzten handizkariak.